

2017ko egutegi fiskala

Hona hemen, 2017ko egutegi fiskala, hau da, zorren aldizkako ordainketa muga barruan borondatez ordaintzeko epeak.

>> **Helbideratutako ordainagiriak** zuzenean kargatuko dira banketxe edo aurrezki kutxetako baimendutako kontuetan.

>> **Ordainagiria helbideratu gabe dutenei** zorra ordaintzeko agiria bidaliko zaie posta arruntez zordunen helbide fiskalera.

>> **Aipatutako agiria ez bada jasotzen**, ordainketa egin nahi duenak agiri hori eskatu beharko du borondatez ordaintzeko epean udaletxeko diruzaintza zerbitzuan.

>> **Ordaintzeko lekuak, egunak eta orduak:** ordainketa banketxe laguntzaileen edozein bulegotan edo kutxazainetan egin ahal izango da: Kutxabank, Laboral Kutxa, Banco Santander eta Caja Rural de Navarra.

>> **Banku-helbideratzea:** ordainketa helbideratzeko azken eguna borondatez ordaintzeko epea hasten den aurreko hilabetearen 15a izango da; Ondasun Higieizinei buruzko Zergaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren kasuan izan ezik, horientzako azken eguna Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritakoa izango baita.

>> **Ordaintzeko epea igarota ordainketarik egin gabe**, zorrak premiamendu-bidez eskatuko dira eta dagozkion errekarguak eta berandutze interesak sortuko ditu exekuzio epean, eta, hala badagokio, egon daitezkeen kostuak ere ordaindu beharko dira.

Informazio gehiago:

- > Zerga-bilketa zerbitzuan
- > 943 71 44 07
- > zergabiltzailea@eskoriatzta.eus

KONTZEPTUA	ALDIA	BORONDATEZ ORDAINTEZKO EPEA	HELBIDERATUTA
URA, ESTOLDERIA	4. HIRUHILEKOA (aurreko urtekoa)	2017/01/04 2017/02/15	2017/02/15
IBILGAILUAK	2017	2017/02/02 2017/04/07	2017/04/07
HONDAKINAK	1. SEIHILEKOA	2017/04/03 2017/05/05	2017/05/05
URA, ESTOLDERIA	1. HIRUHILEKOA	2017/04/03 2017/05/08	2017/05/08
IBIAK	URTEKOA, 2017	2017/05/02 2017/06/12	2017/06/12
OHZ	2017	2017/05/15 2017/07/03	2017/07/03
URA, ESTOLDERIA	2. HIRUHILEKOA	2017/07/03 2017/08/07	2017/08/07
UR-KLORAZIOA	URTEKOA, 2017	2017/07/03 2017/08/07	2017/08/07
MAHAIK ETA AULKIAK	URTEKOA, 2017	2017/01/02 2017/09/09	2017/09/09
HONDAKINAK	2. SEIHILEKOA	2017/08/07 2017/10/05	2017/10/05
URA, ESTOLDERIA	3. HIRUHILEKOA	2017/10/02 2017/11/08	2017/11/08
TB/ TV ANTENA	URTEKOA, 2017	2017/10/13 2017/12/04	2017/12/04